

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Datorren astean, gidatzean distrakzioak sahiesteko zaintza- eta kontrol-kanpaina berria egingo da

Beste batzuen artean, mugikorraren edo GPSaren erabilera kontrolatuko dira

Ostirala, 2019.eko urtarrilak 18

Urtarrilaren 21tik 27ra, Foruzaingoak, Guardia Zibilak eta Tokiko Poliziak zaintza-eta kontrol- kanpaina bat egingo dute, mentalizatzeko gidatzerakoan arreta osoa jartzea ezinbestekoa dela.

Nafarroako Bide Segurtasunerako Estrategiaren barruan gogoratu dute ibilgailu barruan edo kanpoan gidariaren arreta erakarri eta zeregin horretatik besteraten duen gertakari, jarduera, objektu edo pertsona orok distrakzioak sor ditzakeela. Mugikorretik minutu eta erdiz hitz egiten ari den gidariak (esku libreko gailuarekin ere) ez ditu seinaleen % 40ak jasotzen, batez besteko abiadura % 12 jaisten du, bihotz-erritmoa brastakoan azkartzen zaio, eta erreakzionatzeko denbora gehiago behar du. Horrez gain, beste distrakzio batzuk ere kontrolatuko dira kanpainen zehar, hala nola mezu-zerbitzuak (whatsapp eta beste batzuk) edo GPS programazioa erabiltzeagatikoko distrakzioak.

Distrakzioen ondorioz gertatzen diren ohiko istripuak bidetik irtetea, aurreko ibilgailuaren kontra jotzea eta norbait harrapatzea dira, eta kausa hori biktimak dituzten istripuen % 30an errepikatzen da.

Kontzientziazioko kanpainak

Gidatzean distrakzioak prebenitzeko kontzientziazio-kanpainak hainbat gomendio egiten dituzte, horien artean telefonoa ez erabiltzea eta esku libreko mugikorra deskonektatzea, ez erretzea eta GPSa aldeztu aurretik programatzea.

Nafarroako Gobernuak 2018an hasi zuen mugikorra erabiltzeagatikoko distrakzioen kontrako kanpainarekin jarraituko du 2019an zehar, Nafarroako Bide Segurtasunerako Estrategiaren markoan. Gidariei zuzenduta dago bereziki, baina baita oinezkoiei eta txirrindulariei ere. "[Mugikorrak beti itxaron dezake, zure bizitzak ez](#)" esloganarekin, gidatzerakoan mugikorrean mezu bat irakurtzea edo idaztea zeinen arriskutsua den hausnartzera bultzatu nahi gaitu.